



❖ AEK

Mariskadaren zozketa gaur eta DVD salgai jada

Hernaniko eta Astigarragako AEKk mariskada zozketatuko du gaur, 20:30etan. Txartelak erosi ahal izango dira, goiz eta arratsalde, Plazan. Horrez gain, Mikel Laboaren omenezko kontzertuko DVDa salgai dago Aralar, Oindi, Tripontzi eta Zumitzan, 10 euroan. II

❖ ATEZ ATEKO BILKETA

Autokonposta egiteko izena eman daiteke, eta astebete geratzen da

Autokonposta egin nahi dutenek izena emateko aukera dute hilaren 31ra arte. Izena ematen dutenek izango dute: ikastaroa urtarrean, autokonpostagailurik ez badute, eman egingo zaie, hondakinen tasan %40ko bonifikazioa izango dute, eta horrez gain, telefono bidezko aholkularitza eta sei hilabetera atez ateko sistemako arduradunen baten bisita. Izena eman daiteke 900 840 090 telefonoan edo Kardaberazen dagoen bulegoan. Oraingoz, lehenengo txanda honetan, 60tik gora apuntatu dira. Aurrerago ere izango da aukera. II

❖ AAM

Urteko azken kontzentrazioa bihar plazan

Bihar izango da kontzentrazioa egingo den urteko azken ostirala. Leloa izango da *Gaixo larriak eta kondena osoa beteta duten presoak etxera*. Gudarien plazan izango da 20:00etan. II

❖ KONTZERTUA

Kantuz abesbatza eta Musika eskola

Kantuz abesbatzak musika sakroaren kontzertua eskainiko du etzi, 20:00etan Milagrosan, eta Musika Eskola izango du aurtengo gonbidatua. II

Olentzero herrian barrena ibiliko da gaur, Gabon kantek lagunduta

Herriko bazter ezberdinetan ibiliko da gaur Olentzero, eta ohi bezala, Gabon kantak ere ez dira faltako, Kantuz eta Parrokiko abesbatzen eta Musika bandaren eskutik, besteak beste.

OLENTZERO opariz beteta eta gauean lanean aritzeko prest etorriko da gaur, baina aurretik, urtero egin ohi bezala, baserriz baserri eta kalez kale ibiliko da herrian zehar. Gabon kantekin bazterrak girotuko dituzten herriar taldeak ere ez dira faltako. Gainera, atzo bertan hasi ziren ere badira, Musika Eskolako ikasleak hain zuzen. Arratsaldean, kalez kale ibili ziren kantu artean.

Ereñotzun aldaketak

Ereñotzun, urtero bezala, eguerdi partean bilduko dira auzoan barrena kantari ateratzeko, baina aurten aldaketa batzuk egin dituzte ibilbidean. Olak auzo elkartetik jakinarazi dutenez, etxe batzuetara ez dira iritsiko, hala nola, Askatsu, Algorri eta Izenederrera.

Horrez gain, lehen Ereñotzu azkenerako uzten zuten, eta aurten, bailaran behera datozela egingo dute. Horrek esan nahi du arratsaldeko 16:00-17:00 bitartean pasako direla ber-



Musika Eskolako ikasleak Gabon kantekin kaleak girotzen ibili ziren atzo.

tatik eta beste auzo gunetara iaz baino pixka bat goizago iritsiko direla.

Olentzero baserriz baserri Bertso Eskolaren eskutik

Olentzero baserri eta sagardotegietan ere ibiliko da ohitura den bezala, eta aurten Bertso Eskolak antolatuko du. Arratsaldeko 15:30etan abiatuko dira Plazatik, Zikuñaga eta Osiñaga aldera.

Arratsaldean Kaxkoan

Arratsaldean, Kaxkoan zehar ibiliko da Olentzero Ttarla dantza taldearen laguntzarekin. Ongi-etorria egingo zaio plazan, 18:00etan, eta kale buelta egin ondoren, umeei opariak banatuko dizkie. Eguraldi txarra eginez gero, Udaleko Arkupetan egingo zaio ongi-etorria eta kale bueltarik egin ez arren, oparirik ez da faltako.

Abesbatzak eta erronda

Abesbatzen emanaldiak ere izango dira gaurkoan. Parrokiko abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu Agustindarren elizan, 17:00etan, eta Kantuz abesbatzak kale buelta egingo du 18:30etan Milagrosatik aterata. Eta urtero bezala, afaltzera joan aurretik, 20:00etan, Gabon gaueko erronda aterako da plazatik Hernaniko Musika Bandarekin. II

Irati Ugaldek diploma jaso du paleta goman lortzen ari den merituegatik

Joan den ostiralean 'Gipuzkoa Kirolak' sariak banatu zituen Foru Aldundiak eta 'etorkizuneko kirolari gazteen' artean, Irati Ugalde hernaniarra omendu zuten.

IRATI Ugalde Ormazabal, 16 urteko hernaniarrari omenaldi bat egin eta diploma bat eman zioten joan den ostiralean, Kursalean. Foru Aldundiak *Gipuzkoa Kirolak*

sariak banatu zituen eta bertan *etorkizuneko kirolari gazteak* izan zituzten gogoan. Guztira 73 gazte omendu zituzten, tartean, Ugalde, bere adinean lortzen ari den

merituegatik paleta goman; bai pilotalekuan baita trinke modalitatean ere.

Diploma Pasabanen eskutik Ugaldek Edurne Pasabanen

eskutik jaso zuen diploma. Modalitate berean, hernaniarrarekin batera, errekonozituak izan ziren Maitane Aburuza zizurkildarra eta Ander Monserrat irundarra. II

**ARISTREGI**

Sukaldeak

Sukaldeko eta komuneko altzariak
Armairu enpotratuak
Elektrogailuak
Mahai eta aulkiak

Eguberri on guztioi



Erakusketa: Perkaiztegi 10w - Tel.: 943 550 688 - e-maila: suk@aristregi.e.telefonica.net

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 333288 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● GAUR: Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● Gauez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941
✚ FARMAZIAK ● BIHAR: Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Goizean zehar alertuz joango da eta arratsaldean arte ez du ia euririk egingo. Arratsaldean haizeak ipar-mendebaldera egingo du eta zakar ibiliko da. Elur-kota 800-900 m-ra jaitsiko da gauean.
BIHAR Goizaldean zaparrada batzuk botako ditu, baina pixkanaka ostarteak zabalduz joango dira eta arratsaldean urdingu-neak nagusituko dira. Tenperatura jaitsi egingo da.

Hamaikabatek eskatu dio Euskal Epaitegiari, ikuskatzeko, Agustinas-Zinkoeneako obren adjudikazioa

«Gobernu Taldeak %45 igo zuen obren hasierako aurrekontua, behar bezala justifikatu gabe, eta uste dugu irregulartasunak daudela», dio Arratibelek.

IÑAKI Arratibel Hamaikabat taldeko zinegotziak prentsa ohar bidez jakinarazi du, bere alderdi politikoak eskatu diola Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, Agustinas-Zinkoenean berrurbanizatzeko obren adjudikazioa ikuskatzeko. Bere esanetan, «iaz, Gobernu Taldeak %45 igo zuen obren hasierako aurrekontua, berri-

ro enkantetik pasa gabe. Orduan ere, adjudikazioa ikuskatzeko eskatu genuen irregulartasunak egon zitezkeela uste genuelako, baina Alkateak ezezkoa esan zuen. Horregatik, orain, Euskal Epaitegira jo dugu».

Horrez gain dio, tamalez, halako irregulartasunak ohiko bihurtzen ari direla, «azkena

orain ez gutxi, Gobernu Taldeko kide batek kobratu zituen faktura ilegal batzuk medio», eta azken egunetan gertutik ari direla jarraitzen atez atekoari lotuta egiten ari diren kontratazioak. «Behar izanez gero, berriro joko dugu Euskal Epaitegira edo behar den lekura», jakinarazi du Arratibelek. ■

❖ SANTO TOMAS



Izan zen mugimendua, Osiñagan, Portun eta Urumea ikastolan. Santo Tomas eguna astelehenean izan bazen ere, Hernanin auzo, elkarte, ikastetxe eta talde gehienek igandean ospatu zuten; esaterako, Osiñagan, Portun eta Urumea ikastolan. Osiñagan, Gabonetako mus txapelketako sariak banatu zituzten. Honakoa izan zen sailkapena: Pantxo eta Pako Perez lehenengoak; Koldo Loran eta Luis Caballero bigarren; Jose Angel Belaunzaran eta Balentin Urdangarin hirugarren; eta Joxe Zubiondo eta Javier Mendizabal laugarren. Horrez gain, Osiñagan eta Portun saski ederrak zozketatu zituzten eta lehenengoa Arriatxura joan zen; bigarrena, berriz, Javik eraman zuen. ■

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Gobernu Taldeak eta Ezker Batuak herria isilarazten dute

Bi urte eta erdi daramazkit entzuten Udala Gobernu honentzat herritarren partehartzeak duen garrantzia. Partehartze prozesu guztiak, gehiago edo gutxiago, gai garrantzitsuen inguruan izan dira, baina benetan garrantzi handiko gaia esku artean dugunean, atez ateko den bezala, eta nabari denean herritarrak ez daudela gutiz ziur, Gobernu Taldea Ezker Batuarekin bildu da eta ez du uzten herriak iritzirik eman dezan. Esaten dute galdeketa,

sistema jarri ondoren egingo dutela.

Darabilten beste argumetuetako bat honakoa da: iritzia emateko lehenengo martxan ikusi behar dela. Hori horrela, zertarako egiten dira hauteskundeak? txandatu gaitezen partiduko guztiak Udala gobernuan, eta ondoren bozkatuko dugu.

Sistema honetan sinesten ez dugunok ez dugu zer eginik... Martxan jarriko da plenoko gehiengoak erabaki duelako (Gobernu Taldea eta Ezker Batua) eta bi talde hauei ez zaie

batere inporta herriak pentsatzen duena.

Azkenik, zalantza bat dute: Zergatik nahi dute jarri Usurbilgo eta Hernaniko Udalek konposta planta bat beraientzat bakarrik, horrek dakartzan gastuak ahaztu gabe, kontuan izanda Partzuergoak (Diputazioa eta Mankomunitateak) aurreikusia daukala materia organikoa tratatzeko Gipuzkoan beharrezkoak diren plantak jartzea?

Andoni Amonarraiz
EAJ-PNVko bozeramailea
*Erredakzioan euskeratua

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

V. URTEURRENA

Joxe Igarritz Etxeberria

2004ko abenduaren 25ean hil zen Hernanin
(Marta Igarritz Euskal Preso Politikoaen aita)

Nahiz eta gure artetik urrutira joan,
beti izango zaitugu bihotzean.
Asko maite zaitugu.

ETXEKOAK



Urteurreneko meza, **BIHAR, OSTIRALA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 24an

Atez ateko zalantzak argitzen

San Markon lurperatu den zabor hori ondo bildu izan balitz, zenbat birziklatuko litzateke?

% 80 inguru.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Alokatzan den pixu baten bila nabil, Hernanin, 2 edo 3 gelakoa. Deitu: 664 124 259
Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.**
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4).**

pelisimo
FOTODEPILAZIO AURRERATUA

94 333 18 10

Eguberri on!

Kardaberaz kalea, 35
www.pelisimo.com

Ebatzi ezazu zure gorputzeko edozein ataleko ilea fotodepilazio berritzaile sistema honekin.
Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.

tarifa bakarra:
30€

Bizkarra iztondoak hanka 1/2 besoa axilak

UNISEX

- Aurpegi fotogaztetzea
Eta gainera: - Aknearen tratamendua
- Aurpegiko orbanen ezabaketa



RIOJA TABERNA

Mila esker bihotzetik gure ondoan izan zareten denoi.
Eguberri on guztioi!

kale nagusia, 6



GABONETAKO PREZIO BEREZIAK

Yone

boutique

Nagusia, 63
Tfona.: 943 55 74 73
HERNANI